DOHAN ZEURE ETXERAKO

1991ko Otsaila/23. Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailaren babesarekin

... eta kitto!

300 lokal hutsik eta beste 100 erabiltzen ez direnak

Etxeetan, berriz, 1000 dira oraindik bizilagunik gabe

Hamar urtetik hamar urtera egiten den etxeen eta lokalen zentsu edo errolda amaitu berria dugu eta bertan azaltzen denez 100 lokaletik 18 itxita daude, etxeetan % 10erainoko portzentaia ematen den bitartean. 1981etik hona eman diren aldaketik garrantzitsuenen artean enpresa edo industrien aldegitearekin batera geratzen diren lokalen birmoldaketa aipa dezakegu: jeneralean instituzio erakundeek heuren zerbitzuetarako hartzen dituelarik, etxebizitza berriak eraikitzeko proiektuak ahaztu gabe.

1en amaitzen diren urte guztietan bezala, aurten ere Udaletxeko Estatistika Saila etxebizitza eta lokalen kopurua zenbatzen saiatu da. Lanaren emaitzak erakusten duenez hamarkada honetan 10.325 etxebizitzatik ia 11 milara (10.966) pasatu gara, honek %6'20ren gehikuntza suposatzen duelarik.


Datu guztien sailkapenerako orduan, herria bere osotasunean hartuz gain, distritoka banatzen da, horrela bost zatiren arteko konparazioak egin daitezkeelarik. 11 mila pisutatik ia mila eta ehun (1.093) hutsik daude: 286 Merkatuko zonan (Errebal, Bidebarrieta, Arragueta, Estaziño, San Agustin), 250 gutxi gorabehera Erdikaldean (Kalbeton, Isasi, Untzaga, T. Etxeberria) eta kopuru bera Behekaldean (Urkizu, Barrena, Azitain, Txonta), 200 Amañan eta 120 Ipurua aldean.

Eibarko edifizioak 1355 dira guztira eta bataz besteko portzentaia atera ezkero 8 etxebizitza edo pisu eta 1'66 lokal dagokio bakoitzari, batzu eta besteen arteko aldeak ahaztu barik.

■ **Lokal txikiak daude hutsik, handiak, aldiz, errekuperatzen dira.**

Lokalei begira, 2255tik 1823 dira normalki funtzionatu edo zeozertarako erabiltzen direnak (%82a). Besteen artean bereizketa egitea komeni da, alde batetik hutsik daudenak -304- eta bestetik heuren aktibitatea betetzen ez dutenak -107-. Hutsik daudenen artean 90 Merkatuko zonan, 70 Behekaldean, 60 Erdikaldean, 50 Amañan eta 40 Ipurua aldean banatzen dira. Eta nahizta hutsik egon ez, Lanik egiten ez dutenen artean gehiengoa Erdikaldean -40 eta Merkatuko zonan -33- kokatzen da. Hogei bat Amañan dira eta 13 behekaldean. Ipuruan hiru bakarrik aurki ditzakegu egoera horretan.

Ikusten denez, Erdikaldeko lokalak jasaten dute egoera txarrena, batez ere lokal txikiak direnean. Hutsik egotearen arrazoiak, desberdinak izan arren, prezioek badute eragina. Galeriasen aurrean bertan ikus dezakegu lehen "Etxezarraga"



izandako denda, aipatutako adibide bezala.

■ **Hustutako tailerrak aprobetxatuz**

Lehenago tailerrak izandako lokalaren egoera alderantzizkoa da, gehienak beste zerbaitetan enplegatu bait dira, batzutan instituzioek (Agirre eta Aranzabal -Udaletxeak-, Mendiguren eta Zarraua -Foru Aldundiak zati bat-, Lambretta -Ertzantzak beste zati bat, Eroski ere han bait dago, noski-, Ayra Cardan -azken hau dudan badago ere oraindik, Udaletxeak luzatu zuen hartzeko asmoa-) eta beste batzutan bestelako birmoldaketa dela medio (Aurrera -bulegoak eta garajeak–).

Industria aldetik mugimendua izan da: herritik kanpo daude gaur egun Super Ego eta Jata bezalako enpresak, beste batzuren artean. Gainera, Arau Ordezkatzaileak edo Norma Subsidiariak ez dute uzten herriko gunean lokal berriak eraikitzea industri bezala. Hauen ordez etxeak eraikitzea da bultzatu daitekeen ahalbide bat.

Funtzionatzen ez dutenen lokalen artean Coliseo eta Rialto zine aretoak izandakoak daude. Zabaldu direnen artean bankoak dira gehienbat nabarmentzen direnak (Gasteizkoa T. Etxeberrian, Bankinter Errebalen, Bankoa Zuloagatarrenean, Santanderrekoa eta abar) bizpahiru urtetik hona.

Udaletxeko Kontuhartzailetza Sailean adierazten dutenez, hiru urtetik hona erradikazio zergaren kopuruak ez du aldaketarik jaso, Eibarko lokalen kantitatea mantentzen delarik "1.750 gutxi gorabehera. Denbora baten izan genuen ile-apaindegiaren aparteko gehikuntza, baina azken aldi honetan lokal berrien irekitze indizea gutxitu egin da".

	LOKALAK	AKTIBITATERIK				
		Hutsik		gabe		
Erdikaldea	681	57	+	39	=	96 (14'09 %)
Amaña	264	49	+	19	=	68 (25'75 %)
Ipurua	151	37	+	3	=	40 (26'49 %)
Merkatua	752	92	+	33	=	125 (16'62 %)
Behekaldea	419	69	+	13	=	82 (19'57 %)
Guztira	2255	304	+	107	=	411 (18'22 %)

	ETXEBIZITZAK	Hutsik
Erdikaldea	2818	247 (8'76 %)
Amaña	2342	198 (8'45 %)
Ipurua	1517	119 (7'84 %)
Merkatua	2463	286 (11'61 %)
Behekaldea	1826	243 (13'30 %)
Totala	10966	1093 (9'96 %)

■ UDALETXEKO ESTATISTIKA SAILAK EGINA I.N.EEK AHOLKATURIK (INSTITUTO NACIONAL DE ESTADISTICA)

ITURRI ONETIK

Eibarko Udaleko Estadistika sailak hamar urtetik hamar urtera egiten den etxeen eta lokalen zentsua edo errolda amaitu berria du. Azkenengo hamar urte hauetan %6,20an gehitu da Eibarko etxebizitzen kopurua. Bestalde, ikerketa sakon honek dioenez, 100 lokaletatik 18 itxita daude gaur egun, eta etxebizitzei dagokienez %10a. Eibarko zenbait etxeagentziari, berriz, gehiegizkoa iruditzen zaie Eibarren 1.093 etxebizitza hutsik eta 411 lokal hutsik edo aktibitaterik gabe daudela esatea, besteak beste etxebizitza eta lokal asko biziezinia (inhabitableak) edo hondaturik aurkitzen bait dira; hauxe da Calbeton, Isasi eta Arragueta kaleetako edifizio askoren kasua. Bestalde, nahiz eta lokal asko printzipioz itxita egon almazen modura erabiltzen dira.

Hala ere, logikoa denez, etxebizita eta lokalak hutsik aurkitzearen arrazoia, salbuespenak salbu, beraien prezio edo salneurri altua litzateke.

Ayarza Etxegintzako arduraduna den Joseba Ayarza-ren ustetan, azken bolada honetan ez da gauza askorik egin. Azpimarra daitezke hala ere Abontzako poligonoan (polígono 17) eta Barrena kalearen inguruan egindako etxebizitzak eta barakaldo kaleko baju eta garageak. Joseba Ayarza-ren ustetan, "industria potentziatu beharko litzateke. Lehen enpresariek beraien entrepresak handiagotu edo erreka estaltzeko baimena eskatzen zutenean ezetza ematen zieten, eta horregatik alde egin dute Eibartik hainbat eta hainbat entrepresek. Beharrezkoa ikusten dut Industrialde bat eraikitzea Eibarren.

Agustin Oteiza Arkitektuari asko direla etxe eta lokal hutsak, baina estudioa egin bada posibletzat jotzen du.

Bere ustez 3 arrazoi nagusi daude hau gertatzeko. Lehenengo alkilatze ohitura eta joeraren falta; alokatzerik ez da nahi. Bigarrenik, eta etxe berrien kasuan argi dago inbertsioa da arrazoia. Piso eta lokalak 5 urtean behin prezioa doblatu edo bikoiztu egiten dute eta inbertsio ona da. Eta hirugarrenez, piso zaharra duenak ez du saldu nahi beste zer edozer egingo den zain dagoelako, ez du merezi saltzeak; azken baten hau ere inbertsioa da

... eta gainera

- SIDA-HIES Eibarren
- Triathlon taldea mintzo
- Aitor Irisarri kioskeroa
- Dioni Kortina harrijasotzailea
- Goi argiko emakumeak
- Inkesta: Udalbusa

BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK

ETESA

KOMERTZIALA

Bidebarrieta, 66. 428 Postakutxa/ Tfnoa: 12 19 73 (Eibar)

ARDAU — DENDA

BERASALUZE ESTANKOA

TABAKOA, ARDAU EDERRAK ETA KABA APARTAK SAN JUANETARAKO/OPARI PAREGABEAK

San Andres Pasalekua 5. Tfnoa: 11 01 40 EIBAR

Aratusteak 91



7an; EGUENZURI - Erraldoi/buruhandiekin kalejira. Urkizutik haurrentzako berbena ORTZADAR Taldea

8an: 7retan. Untzagan. Haurrentzako Mozorro eta makilaje tailerrak/8retan: "Errealisten" kalejira./DANOK BAT fanfarria/Gaueko 12etan: DANOK BAT eta ARDOA BARRURA fanfarriak.

9an: SAPATU ERREGULARRA. 11etan. Txistulariekin kalejirà. Ondoren Untzagan Kontzertu "BUFO"a ./5etatik aurrera haurrentzako mozorro tailerrak./Fanfarria/ gaueko 12etatik aurrera Untzagan KUADRILAk eta KILI-KOLO Antzerki Taldea Goizeko 4rak arte berbenak Untzaga-Urkizu-Ibarkurutze eta Anbulategiko Parkean.

10an: ARATUSTE DOMEKA. UNTZAGAn11tan: Txistularien Kalejira. Goiz eta arratsaldez HAURRENTZAKO EMANKIZUNAK./ 12etan: Kontzertua; Txistulari eta Udal Banda. Ondoren BERTSOLARIAK: Arantzazu Loidi eta Ion Sarasua./ 1tetan: HERRI-KIROLAK: I. perurena harrijasotzailea. Saralegi Haizkolaria /5,30etan Haurrentzako emanaldia HORTZMUGA TALDEAREKIN./ 7retatik aurrera Armeruen Konpartsa eta ARATZ Fanfarria.

11an: ASTELEHENA. 5etan: Haurrentzako jolasak Untzagan, 7retan: Udaletxeko Batzar Aretoan SARI BANAKETA (Lokal eta Kartel Lehiaketak).

12:MARTITZENA. Urkizun. HAURRENTZAKO JAIA: 4,30ETAN; (Bolanderak, Suzko-Zezena, ponyak..)/ 6,30etan ANTZERKIA AZKONA TALDEA./ Gaueko 10etatik aurrera BOST AXOLA fanfarria. / Gaueko 12etan Sardinaren entierroa Kili-kolo taldearekin.

Aukera paregabea



SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROA

Udal Euskara Batzordeak antolaturik. Aurkezpena: 02-18an Udal Batzar Aretoan

Euskararen gainean hainbat eta hainbat galdera, beste horrenbeste duda eta kezka sortu zaizkigu eta sortzen ari zaizkigu euskararen normalkuntzan dihardugunoi edo jarduteko asmoz egon daitezkeengan. Hona hemen dauzkagun lausodura horiek argitzeko AUKERA PAREGABEA.

Erantzunak eta argibideak emateko SOZIOLINGUISTIKAren arloan jantziak eta praktika zein teorian bidea egiten diharduten irakasleak hartuko dute parte: J.M. Sanchez Carrion "Txepetx" Koldo Zuazo, J.I. Gonzalez Txabarri, J.A. Irigarai, J. Arejolaleiba, I. Arruti, Xamar, SIADECO, M. Zalbide, J. Zabaleta eta J. Barriolak.

Eibarko Udaleko Euskara Batzordeak antolatutako Ikastaroa otsailaren 18an hasi eta Ekainaren 6an amaituko da eskolak astearte eta ostegun iluntzean izango direlarik. Matrikula egin ahal izateko informazioa 118064 telefonoan emango da, eta ikasle eta langabetuentzat 4.000 Pzta eta bestelakoentzat 8.000koa da.

Helburua, hitz bitan esateko, zera da: euskararen gainean ausnarketa eta azterketa-gunea eskeintzeaz gainera diagnosiak egiten ikastea eta normalizazio linguistikorako jakingarriak diren faktore eta elementuak aztertzea.

Narruzko zezen XIV antzerki ihardunaldiak



Unibertsitate Laboraleko narruzko zezen antzerki taldeak prestaturik

Aurkezpena:
Otsailaren 19an Udaletxeko kultura aretoan. "Las virtudes" bikotearekin.

Amaiera:
Martxoaren 15an. 12-14 taldek parte hartuko dute.

Emanaldiak:
Arratsaldeko 8'30etan Unibertsitatean.



La COZ del Deba

Hona hemen " La COZ del Deba" dei genezakeen aldizkari berria. Idea zaharra da. Zenbait lekutan egiten da horrelakorik. Bide hau gehienbat Frantzian dago garatua eta horrelako hainbat eta hainbat aldizkari daude nonahi.

Baina "La COZ del Deba" esan badugu irakurle erdara hutsean kaleratzen delako da. Ematen duenez Deba bailara eta Eibar Euskal Herritik kanpo daude, hortik zehar. Ez dago ez artikulorik, ez publizitate-modulorik, ez denbora pasa triste bat bera ere euskaraz. Beste komunikabide batzutan publizitatea euskaraz egiten dutenek hemen erdaraz.

Oraindik gehiago esateko funtzio sinbolikorik ere ez du betetzen: izenarena.

Espero dezagun orain ere aldizkari gaztea izanik oraindik ere finkatu gabe egotea eta sentsibilitate piska bat edukiko dutela eta joera oker hau zuzentzea.

IRAKURLEAREN TXOKOA:

Kaixo:...Eta Kitto aldizkaria era ezberdinetan banatzen duzuela konturatu naiz.
Aurreko alea etxeko buzoian jaso nuen baina oraingoa aitzitik ez. Hori dela eta betiko tokietara (taberna, kiosko...) bila joan eta ez zegoela jakiterakoan harritu nintzen.
Hona hemen nere galderak:
-Zein erizpide erabiltzen duzue aleak banatzerakoan?
-Hilero jaso nahi dugunok zer egin behar dugu?
Hurrengo arte
Eibarko batek

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Banaketarako erizpideak: 15urtetik gorako euskaldunen bat, gutxienez, daukaten familietara.
Jakina, oraindik ere, era honetan ale bi banatu ditugu bakarrik. Beraz, erroldaren akatsen bat dela edo geuk egindakoa, gerta liteke ez jasotzea. Baina kontuz gero buzoietako harrapariekin!.
Dena denn, eta 21. alean esan bezala halakorik edo bestelakorik gertatzen denean dei 118064 telefonora.



Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia?. Beno hori hala bada eta AYERBEk oparituko duen liburua irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!!

Eibarko Udala
Euskera zerbitzua

EIBARKO UDALA - EUSKARA ZERBITZUA "...Eta Kitto Sariketa" 22. Aleko sariketaren erantzuna "Buenos Aires Etxea" zen.
SARITUA: ANA MARIA GARCIA CARCEDO, R. Galdos Kalean bizi dena Hurrengo Sariketarako otsailaren 15a baino lehen bidali behar dira erantzunak. ANIMATU ZAITEZTE. KARTA ASKO JASOTZEKO GOGOA DUGU ETA!!!. SORTE ON!!!

AIERBE LIBURUDENDA — Liburu salduenak Urtarrilean

EUSKARAZ

"Euskal Herriko ehun gailur eta mila txoko". Peña-Santiago.
"Eibarko gatxizenak". A. Narbaiza
"Eibarko argazkiak" A.K.M.
"OBABAKOAK" B. Atxaga

ERDARAZ

"El desafio". J. Cacho
"Como ser mujer y no morir en el intento". C. Rico-Godoy
"El cambio del poder". A. Toffler
"El manuscrito carmesí". A. Gala

ZORIONAK ZURI


Astekari berri bat, BERRIGARA, geure bailaran euskara hutsean. Ongietorria. Arrasateko "Arrasate Press" ospetsuaren ondoren eta hildo eta hoerari jarraituz, astero-astero kaleratzen du Bergaran, euskara sustatu eta normalizatzeko sortu berri den "JARDUN" Elkarteak. 16 orrialde ditu eta bere atal desberdinetan zehar aktualitate eta egunerokotasuna duten gaiak jasotzen ditu. Euskaraz informatzen du.

"Berrigara"rekin hiru dira euskara hutsez argitaratzen diren herri-aldizkariak: Legazpian "Enebada", Arrasaten "Arrasate Press" eta, esandako moduan "Berrigara". Txalogarria.

Bizitza luzea opa diogu "Berrigara"ri eta besteoi, erreferentzia bihurtu bait dira.

Noizko izango ote gara gai horrelako zerbait egiteko Eibarren? Erronka ez da txikia baina ezelan ere ez ezinezkoa. Ea bada iniziatibari ekiteko edo jorratzeko gai garen.





HARTZAREN KOBATIK

Aratusteko aholkuak

Urtero bezala heldu dira, Aratusteak gain-gainean ditugu. Gure Eibarren hainbat indar eta sona duen ospakizun hau iritsi zaigu azkenean, soziologo eta sikologoen mesederako, batez ere. Horrela, egun hauetan komunikabide guztiak "jakintsuz" josita azalduko dira, Aratusteen eta frustrazioen arteko lotura aztertuz, edota norberak aukeratutako mozorroak bere pertsonalitatearen karentzia bat agertzen duela esanez. Betiko kontua.

Nere ustez, ordea, Aratuste jaiak zerikusirik gehiago du ondo pasatzeko grinarekin, frustrazioen exorzismo batekin baino. Eta disfrazen aukeraketa, maizegi bakoitzaren posibilitatetan du gakoa, eta ez barne-pertsonalitatean. Dena den, eta sikologo-soziologoen teoriari helduz, gure herriko zenbait pertsonaiei dagozkien disfrazak aholkatzera ausartuko gara. Gero ez dezala inork esan txoko honetan beti ezkor eta kontra eginez agertzen garela.

Hasteko, gure alkatesa maiteari, Aurora Baskarani, zuzendutako aholkua. Guretzat, ipuin zahar batean agertzen zen "gato con botas" en disfraz bat egoki oso izango litzateke Eibarko agintari nagusien Aratustetako. Horrela, zazpi legoako boten bitartez, esplikatuko litzateke nola demontre moldatzen den Eibarren alkatesa eta Madrilen Senadorea izateko aldi berean. Beste misterio bat argiturik, Sherlock.

Juan Luis Mardaras, Eibar futbol taldeko presidentearen disfraza askoz sinpleagoa litzateke. Mikhail Gorbachoven kareta bat jartzearekin nahikoa da, bere merituak ikusi eta gero. Karabeg iugoslabiarra eta Lugovniv errusiarra fitxatu ondoren, ekialdeko Europan gutxi izango dira "perestroika" -ri buruz berak baino gehiago dakitenak.

Eibarko udaltzaingoaren buruak, José Miguel Callek, badu bere ogibideari bete-betean doakion disfraz bat: sheriff arena. Horrela, "Stetson" -a buruan, bi "colt" haundi gerrian eta zilarrezko izar batekin, gure herriko jaietara hurbildutako zaldilapur bronkazale guztiak uxatuko lituzke. Edo, behintzat, gure herriko "Saloon" guztiak ateak isteko ordutegia errespetatu dezatela lortu. Ez da gutxi izango.

"Far west" -eko kontuekin jarraituz, Bilbaoko Etorbidean kokatutako komisaldegian lan egiten duten ertzainek, bere koartela "fuerte" bat bihur daiteke, zurezko hesia, amerikar bandera eta zauritutako turutajolea eta guzti. Azken finean, gure herrian agertu diren pintada batzuren arabera, badira ertzainek bere koarteletik bota nahi dituzten indio batzuk, nola edo hala "Fort Ardanza" izen ezinobea izango litzateke mozorro honentzat, gure lehendakari agurgarriak orain dela bi urte "Cow boy" moduan jantzita agertu zela kontutan hartzen badugu.

Gaur 18 SIDA-gaiso Eibarren, urte gutxi barru 150 izatera helduko dira.

"Gaisotasun honen bilakaeraren aurrean, ezkor agertu behar naiz", dio Daniel Zulaikak, SIDAren Prebentziorako Planaren koordinatzaileak. Bere ustez, hurrengo urteetan SIDA kasuak zeharo ugalduko dira gure artean, gaiso asko eritasuna desarroilatzen ari direlako. Gure inguruan, Deba-Behea dugu, Euskal Komunitate mailan, Sida kasuen portzentairik haundienetakoa duena, Bigarrena hain zuzen ere, Donostiaren atzetik. Debaldean 50 gaiso zentsaturik baldin badaude, 18 eibartarrak dira. Dena den, Euskal Komunitatean, astero 5 gaiso berri agertzen dira. Datu hauen arabera, urte gutxi barru Eibarren 150 SIDA gaiso inguru izango direla estimatzen da, hauetatik, asko umeak izanik.



Euskal Komunitateko "ranking"-ean, Deba-Behea bigarren lekuan kokatzen da

Hiru urteko iharduera daramatzan SIDAren Prebentziorako Planak ez du lan makala. Datuei gainbegirada bat bota ezkero, **Daniel Zulaikak**, zerbitzuaren koordinatzaileak, agertzen duen jarrera ezkorra justifikatu dezakegu. Osakidetzak antolatutako zerbitzu honen datuen arabera, Euskal Komunitatean (Araba, Gipuzkoa, Bizkaia), 10.000 pertsona inguru kutsaturik daude. Kopuru honetatik, %10ak gaisotasuna desaroilatu du, eta beste 2.000 lehenengo sintomak sentitzen ari dira momentu hauetan. Beraz, ondorengo urteetan Sida kasuen ugaltze haundi bat espero da.

Gaisotasun hau desarroilatzen dutenen artean, %89 heroinazaleak dira. Nahiz eta albiste asko esan beste "arrisku talde" berriak agertzen ari direla, **Daniel Zulaika**ren ustetan drogazaleak multzorik haundiena jarraituko dute izaten. Jende honentzako, SIDA hartzeko arriskua ez da txantxetan hartzeko gauza, heroinazaleen %60 kutsaturik bait dago. Kanpaina asko burutu arren, drogazaleen kopuru haundi batek jeringak konpartitzen jarraitzen du.

■ Debaldea aitzindari

Beste hainbat gauzetan bezala, SIDAren bilakaera prozesuan Debaldea aitzindari izan dugu Euskal Komunitate mailan, Eibar protagonista izanik. Adituen ustetan, Euskadi mailako lehen SIDA kasuak Eibar inguruan agertzen kasualitate bat izan zen. "Hemen sufritzen dugun SIDAren birusa Estatu Batuetatik zetorren, eta Amsterdamera joandako drogazaleen bitartez heldu zen gure ingurura. Kasualitate batez, Debaldeko heroinazale batzuk izan ziren kutsatu ziren lehenak", diote gaisotasun latz honen munduan murgildurik dauden aditu hauek.

Debaldea aitzindari edo pionero izan ba zen lehen une batean, gaur egun egoera normalizatu dela esan dezakegu, gainerako eskualdeen txarrerako, gaisotasuna Euskal-Herri osoan zehar zabaldu bait da. Dena den, Debaldea, eta Eibar batez ere, toki larrienen artean kokaturik daude, SIDAren maldizioak gogor jo duelako, eta jotzen jarraituko du, gure inguruan.

■ 50 kasu gure komarkan

SIDAren eragina neurtzen duen "ranking" tristean, debaldea ondo kokaturik dagoela esan behar dugu, bigarren tokian hain zuzen ere, Donostiaren atzetik. Osakidetzaren estatistikek diotenez 100.000 biztanleko 60'2 SIDA kasuren tasa dugu Debaldean, Donostiakoa 65'7koa izanik. Gauzak horrela, 50 seropositibo zentsaturik daude gure komarkan, 18 Eibartarrak direla. Gaiso hauen artean, %89 heroinazale dira, eta baita %89 hogeitahiru eta hogeitabederatzi urte artean dira. Kutsatutako Eibartar hauen artean dozena bat gizonak dira eta gainerako seiak emakumeak.

Datu guzti hauek kezkagarriak badira ere, larriena etorkizun iluna dugu. Milaka pertsona, Euskal Komunitate mailan, gaisotasunaren lehen sintomak desarroilatzen ari direla kontutan hartzen badugu, eta SIDA gaisoek gero eta denbora gehiago bizi direla eritasuna agertu eta gero gehitzen badiogu, urte gutxi barru eibarren 150 kasu izango direla kalkulatzen da. Kalkulo guztiak bezala, erruren bat egon liteke, baina, **Daniel Zulaikak** dioenez "zifrak inguru hortatik izango dira, zoritxarrez".

■ Haurren arazoa

Gaur egunerarte, SIDA kasoak heroinazaleengan agertu dira batipat, baina azken boladan arazo berri bat zabaltzen ari da etengabe: SIDAz kutsatutako haurrena. Ume hauek, ama seropositiboen semeak izaten dira gehienetan. Nahiz eta, beste SIDA gaisoak bezala, kontajiosorik ez izan egoera normal batean, odol-bide edota sexual harremanen bitartez baizik, arazo ikaragarriak izaten dira ume hauen eskolarizaziorako. Kutsaturik ez dauden umeen gurasoek, desinformazioaren eta beldurraren poderioz, haur seropositiboak baztertzea esijitzen dute. Hainbat kasu ikusi ditugu azken hilabeteetan.

Euskal Komunitatean, 21 haur seropositibo eskolarizaturik daude, bere adin bereko umeekin bizitza normal bat eginez. Panikoak eta histeriak sortutako arazoak ez izateko, administrazioak ez ditu kasu hauen izenak aditzera ematen. Noski, ikastetxe bakoitzeko zuzendariek badakite haur hauen egoera. Neurri hauen bitartez ume gaiso hauek, eta "gaiso" hitza bere bi zentzuetan erabili genezake kasu honetan, diskriminaziorik ez jasatea espero da. Dena den, eta gure gizarteak konzientziatzen ez den heinean, gaisotasun latz hau sufritzen dutenek diskriminaturik jarraituko dute, errudun bezala kontsideraturik, eta ez benetan direnaren lez: gaisoak.

	DEBALDE OSOAN	EIBAR	ELGOIBAR
SIDA KASUAK	50	18	18

	GIZONAK	EMAKUMEAK	HEROINAZALEAK	23-29 URTE
SIDA KASUAK EIBARREN	12	6	%89	%89

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK
ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tel: 11 00 70

S.C.R. ARRATE
Goizeko 7,30etatik zabalik
Pintxo eta tragu xarmanantak
Etor hadi
"KULTURALERA"

Eibarmoto
MOTORREN SALMENTA ETA KONPONKETA
Matxaria, 2 Tel: 11 33 32 Eibar

KIROL PARTE-HARTZEA

Triatlon-a

Esperientzia berri bat

Hona hemen, gure herrian sortutako kirol berri bat; "EIBARKO TRIATLON TALDEA". Honi buruz hitzegiteko Jon Alegria 21 urtekoa, eta Jon Ander Vildosola 22 urteko gazteekin egon gara. Lehenengoa, Donostian, Ingenieritza Teknikoa ikasten ari delarik eta bigarrenak, Eibarko Unibertsitatean Administratibo ikastetetan dihardu. Bi mutil hauek, aipaturiko taldearen partaideak dira, eta praktikatzen duten kirolaren berezitasunak eta arazoak esplikatu dizkigute.

Triatlon-a, hiru kirol batera egitean datza; "Hau da, kirol honetan, bere izenak dihoen bezala, hiru proba ezberdin egin behar dira erlojua geratu gabe. Beraz erlojuaren aurkako lasterketa bat da. Hala ere, bi eratako triatlon probak daude; udakoa eta neguko triatlon-a. Udan, lehenengo proba, igerian egitea da, gero txirrinean ibili eta bizikleta utzi ondoren, marathoi bat egin behar da. Neguan aldiz, igerian aritu beharrean, fondoko eskia egiten da.

■ **Taldearen sorrera**

Amerikan sortutako kirola dugu ha, orain dela 13 urte, hango mariñak egindako apostu baten ondorioz. Hemen ordea, (Eibarren), "orain dela urte bat pasata sartu da, lagun batzuk "EIBARKO TRIATLON TALDEA" osatuz. Kirol talde berri hau, 22 partaidez osaturik dago; hala ere gure taldean neskak falta dira, ez da batere animatu eta oso egokia izango litzateke talde mixtoak egiteko". Aipatzen digute gurekin hitzegiten egon diren gazteek. Talde honetako partaideei, bai atletismotik eta bai txirrindularitzatik datorkie triatlonarenganako zaletasuna eta nahiz eta nahiko kirol gogorra izan, oso ondo moldatu dira.

■ **Entrenamendu saioak**

Polikiroldegian entrenatzen dute bi edo hiru ordu egunero, hor igerilekuan nahiz makinetan gogor aritzen direlarik. Hiru hilabetero, entrenatzeko plan berri bat egiten dute. "Garai bakoitzak, entrenamendu ezberdin bat eskatzen du". Entrenatzeko saio hauek, **Alejandro Altuna**, polikiroldegiko medikua, **Iñaki Ugarteburu** eta triatlon taldearen artean prestatzen dituzte. Gainera igerilekuan kursilo bat egin dute **Juantxo**rekin.

"Entrenatzea agian, nahiko gogorra, kirol bat baino gehiago egiten dugulako baina triatlon-ak engantxatu" egiten zaitu eta gero eta gehiago saiatzen zara.

Gainera oraindik, oso gazteak gara, -Taldearen media, 24 urtekoa da- kirol honetan adin egokiena 30 urtetakoa bait da. Kirol honetan, indarrak hiru proba ezberdinetan ondo banatzen ikasi behar da eta fondo asko lortzea oso garrantzitsua da.

■ **Esponsor falta**

Talde guztiak, arazo berdina daukate; diru falta, eta triatlon taldearekin berdin gertatzen da. Ez daukate inondik, inolako laguntzarik, eta dena, heuren poltsikotik ordaindu behar dute. "Eibarko toki guztietara joan gara laguntza eske, baina, informazio falta handia dago eta askok ez dakite zein den praktikatzen dugun kirola. Ez dugu diru asko eskatzen, entrenatzeko materiala behar dugu bakarrik, beste guztia guk ordaintzen dugu".

Diru falta, denontzako arazo handia da, baina agian arazo larriena gazte hauentzat, triatlon-a egiteko leku falta da. Hemen Eibarren, ezin da triatlon-a praktikatu-duatlon-a bakarrik egin daiteke, hau da, korrika egin, bizikletan ibili eta berriz korrika egin- " Atletismoko pistarik ere ez daude entrenatzeko, eta orduan Elgeta eta Ermuaruntz, bidetik joan behar gara, horrek dakarren arriskuekin, gabean entrenatu behar bait dugu". Baieztatzen digute **Jon** eta **Jon Ander**-ek.

■ **Talde honen asmoak**

Gazte hauek, esperantzaz beterik daude etorkizunari begira. Euskadi mailan, gure asmoak, lehenengo bost talde onenen artean geratzea da. "Emaitzak, oso garrantzitsuak dira, gero laguntzak jaso nahi baditugu. Talde on bat egiten saiatzen ari gara, eta jendea animatzen bada, gu prest gaude gure laguntza eskeintzeko" azaldu digute kirolari hauek.

Kirol honengana gure arreta finkatu behar dugu, nahiz eta triatlon-a kirol gaztea izan, indar handiarekin sartu da Euskal Herrian "Orain denak federatu egin behar gara, gero eta federatu gehiago daude Euskal Herrian, honen frogarik handiena egiten diren proben partizipazio handia da. Askotan bakarrik onenak parte hartu dezakete ez bait daude leku aproposak jende kopuru handi batentzat".

Mutil hauek gahien azpimarratzen digutena, esponsor eta lekuaren falta da. Beraz, ia denon artean, laguntza bat jaso dezaketen, gazteek, gustatzen zaizkien kirolak, modu egokian egin ditzaten.

LITERATURA


Txiparta gaitzizena erabiltzen duen 17 urtetako neska dugu, olerki honen idazlea. Aldatze ikastetxean burutzen ditu bere ikasketak (UBI). Ipuin eta olerki mailako zenbait lehiaketatan hartu du parte. Hala ere, bere idazleko joerak, lehiaketetarako ezezik, beste momentu eta arrazoiengatik ere, idaztera darama. Ez du estilo finkoeta zehatzik, eta orain arteko bere gairik erabilienak politikoak izan direlarik. Idazteaz gain baditu beste zenbait hobbi; irakurtzea, musika (Euskal musika batez ere)...

Eta orain

Barkatu,
barka nazazu mesedez...
Bai, barka ezazu nire tontakeria,
barka nire koldarkeria, nire
ahulkeria.
Baina jada beranduegi da,
bukaerara iritsi zara, eta Zurekin gu,
gutxi batzuk besterik ez.
Akabo.
Leihora hurbiltzen naiz,
eguzkia mendi tartean izkutatzen ari
da poliki-poliki
malko batek nire aurpegia bustitzen
duen bitartean.
Zer esan dezaket?
Ezer ez, mutu nago, ez dut
hitzegiterik nahi eta gainera ezin
dut,
ez ezin dut... ez zauzkadalako.
Betirako zinela uste nuen,
hori sinestarazi zidaten
eta nik, koittadun honek, sinestu
egin nuen.

Eta orain...
Zu gabe, nola bizi? Zertarako?
Nire Ama zinen,
Nire Bizia,
Nire Euskarria.
Eta orain...
Bakarrik nago,
nire Anaiak ere joanak dira, Zu
bakarrik utzita.
Ez zatzaizkie axola,
beraien burua besterik ez bait dute
ikusten;
doazela pikutara!
Niri axola zatzaizkit,
inporta zatzaizkit... maite
zaitudalako.
Zatoz!
Zatoz berriz nigana!
Zatoz!... Zu gabe galdurik bait
nago.
baina eziznezkoa da,
azkenik gertatu da,
azkenik lortu dute gu Zu gabe
uztea,
azkenik gertatu da ezinezkoa
zirudiena, azkenik...
Oso zaila zait zinistea,
ez dut hori sinisterik nahi
baina egia da,
Zu joana zara betirako,
eta nik zoritxarrez ezin dezaket...
ezer egin
Zu agurtu baino.
Laoizarte.

Agur euskara maitea
Eta naiz eta ni inor ez izan
zuri diotsut egoerak (guk) horrela
jarraitzen badu (Gu),
gure izanaren arrazoia galduko
dugula: EUSKARA
Horregatik
Begiak ireki!
Jarri tente!
eta tontakeriak alde batera utziz
Egin **Euskaraz** kontxo!



NARRUZKO ZEZEN

Antzerki giroko artikulu eta gidoien VI. Lehiaketa

"Narruzko Zezen" Taldeak antolatu eta Udalak babesten dituen sariketa honen helburua antzerkia gazteengan sustatzea du helburutzat.

Hiru maila daude parte hartu ahal izateko. A: hamairu urterarte. B: hamalautik hamaseira eta C: hamazazpitik hogetabostera. Maila bakoitzean sari bi ematen direlarik.

Bestalde, esan beharra dago egunkari batzutan argitaratzen direla eta "... eta Kitto!"ren txoko honetan ere.


Partehartzea Deba Beheko 25urtetik azpiko edonori zabalik dago, generoa eta hedadura libre direlarik.

Gidoiei dagokionez bi maila daude A eta B. Partehartzeko "A" mailan 5/6 folioko gutxienez muga gainditu beharko da eta "B" sailean 10/12.

Lanak sarit zeko guztira ia 140.000 pztako diru-kopurua dago eta lanak eraman edo posta zertifikatuz igorri behar dira Otsailaren 10a baino lehen.

"NARRUZKO ZEZEN" SARIA
HEZKUNTZA KONPLEXUA
(Unibertsitate Laborala).
Otaola Hiribidea, 29
20.600 Eibar

GAZTE AUSARTAK



"Kiosko batek ez dizu bizitzeko diru askorik ematen. Ateratzen duzun hileko soldatarekin ezin duzu gauza askorik egin. Gainera hainbeste diru ordaindu ondoren pujagatik, ateratzen duzun diru kopurua txikia da".

Aitor Irisarri: kioskero gaztea

Eguneroko notiziak garrantzitsuak dira eta horregatik egunero erosten dugu egunkaria, notizia horien berri izateko.

Egunkaria informazio medio garrantzitsu bat da, bere baitan informazio asko dakar eta jende gehienari heltzen zaio, ez bait da medio garesti bat. Egunero goizeko 6 t'erdietarako egunkariak, kioskoetan egoten dira saltzeko prest. Baina ez da dena hain erraza. Lan hori egiteko jende konkretu bat dago egunero lan egiten duena. Hauek kioskeroak dira.

Aitor Irisarri, eibartar mutil honek, kioskero bezala lan egiten du. 1989. Urrian lehenengo aldiz ireki zuen Amañako kioskoa. Aitor, langabezian zegoen eta enteratu zen Amañako kioskoa subastan zegoela. Familiak bultzaturik, pujatu zuen subasta horretan eta orain bertan dago lanean.

"Ez da bizimodu erreza. Egunero goizeko 6 t'erdietarako altsatu behar nahiz, aldizkariak bildu eta saldu beharbait dira. Eguerdiko ordubatak arte lan egiten dut goizez. Gainera goizean lana handitu egiten zait. 4etatik 7'30etara ere lan egiten dut arratsaldez. Lan nekatua eta ordu hil asko igarotzen ditut".

Aitorrek pujatu zuenean 7 urtetarako eman zioten kioskoa.

Nahiz eta hasiera baten gogoz hasi lanean, denbora pasa ondoren Aitor ez dago oso pozik bere lanarekin.

Nahiz eta Amaña auzoan ez izan ezaguna, oso ondo onartua izan da Amañako auzokoen artean, gehienbat bertako etxeko-andreen artean, beraiek askotan erosten bait dute aldizkaria. Eguneroko bezeroak dira.

Gehien saltzen dituen egunkariak Euskal Herrikoak dira. El Correo, Egin, D.V., Deia...

Egunkariez aparte, txaskarrilo eta autu-aldizkariak oso onartuak dira. (Hola, Semana, e.a....)

Baita ere Motor eta moda errebistak ondo saltzen ditu.

Etorkizuna Aitorrentzat ez dago oso argi. Lanean hasi zenean kioskoan ilusioa zeukan, eta tira!, baina, orain, zerbait hobeagoa ateratzen bazaio kioskoa utzi eta beste lan bati ekiteko aukera badu ez dio muzin egingo.



Izenburua:
Haltzak badu bihotzik

Idazlea:
Iñaki Mendiguren

Argitaletxea:
Elkar

Orrialdeak: 103

Iñaki Mendiguren-ek idatzitako "Haltzak badu bihotzik", bere lehenengo elaberria, dugu oraingo hau. Ezkiotarra da berau, 1954.urtean jaioa. Filosofia eta letretan lizentziatua eta makina bat urtetan zehar maisu jarduna. Guzti hau, itzulpengitzara eman aurretik. Gaur egun Arrasaten bizi da eta bertako "Arrasate Press" eta Aed-en sorreran parte hartu zuela ere aipatu beharra dago. "Haltzak badu bihotzik" obra hau "Cafe. Iruña. Baque", 1989 an eginiko VII.lehiaketako elaberri saritua suertatu zen. Aurretik aipatu dugun bezala, Iñakiren lehen obra dugu hau eta Durangoko azken azokan nabarmenetariko bat.


Modu orijinal eta berezian adierazitako maitasunaren goraipemen bat da. Ikasle eta irakasle baten arteko harremanen gorabeherak dira nagusi, beraien elkarrizketak, ezbaiak, gozamen uneak, gorrotoak, minak... Gizarteak jarritako oztopoak gaindituz bizitako erlazio estua. Baina guztiak bezalaxe bere amaiera edukiko du. Ordua baino lehen etorritako amaiera latza. Gizarteak jarritako aran burugabe batek eragindako amaiera. Etsipenerako bidea bihurturiko, oztopo gainditu ezina.

"Azpertua nengoen ohearen erdia hutsik sentitzen; nekatua, gau erdian iluntasunari begira, loarekin adiskidetu ezinik..." Horrela ematen dio hasiera elaberriko irakasle protagonistak, bere bakarrizketa sakonari. Lur jotako, eta ustez, adinak garaitutako gizona zen hasieran berau, baina ikasturte berri hartan ezaguturiko 'zu" hura (ikaslea) izan zen, bere bizitza berriz ere berreraikiko zuen arrazoia.

Horrela ba, beraien harreman estuak aurrera joko du, nahiz eta, bi gizon izateagatik sorturiko zurrumurruak agertu, edo ta, ikasle-irakasle paperan arteko kontraesana oraindikan bertan iraun. Beraien erlazioak aurrera jarraituko du, bere gorabehera eta guzti. Hasieran harreman hau hautsi egingo da egonkortasun eza eta gizartea direla errudun, baina beraien arteko estutasunak berriz ere elkar araziko ditu.Aserraldi tarte honetan, neskatila bat bihurtuko da, bien arteko mendeko edo ase nahiaren bide. Baina gertakizun honen epea ez da luzea izango. Erlazio garbi hori ostera etorriko bait da eta egonkortasuna handitu. Hala ere, gizarteak jarritako oztopo guzti hauek gainditu ondoren, urrengo bat agertuko zaie ordea, eta hau izango da benetako amaiera. Ikaslearen soldaduzkara joan beharraz. Soldaduzka egiten dagoen bitartean, etsipenezko gutunak bidaliko dizkio irakasleari, eta honek, mina eskutatu nahian erantzun. Baina ez du luzaro joko egoera honek, heriotzak bereganatuko bait du ikaslea.

Lehen pertsonan idatzitako elaberria dugu hau, hiztegi landu eta era berean errazaz. Gizarteak jarritako arauak kritikatzen diluela uste dut; sodalduzka, tradizio batzu... maitasuna, guzti horren gainetik dagoela adieraziaz.

Benetan elaberri interesgarri, sakon eta irakurterreza.



Rugbyzaleen aldizkaria

Hona hemen Eibarko Rugby Taldearen emaitza berria: XV Baskarians-en 4.alea.

Artikuluen artean Eibarko jokalari xelebreak, Rugby-eskola, Argazki Albuma, Rugbyaren mitoak, zoriona k jubenilei, Rugbya Euskadin (Lastima Ipar Euskal Herriko berrik ez ematea) zaletuak eta zelaia, e.a. irakur liteke.

Ez da txantxetakoa gero! Rugbyan jolastu eta jokatu eta gainera aldizkaria kaleratu. Hori dok afiziñua! Editorialean esaten denaren arabera taldearen 12 urtetako bizitzan aurtengoa da urterik hoberen eta disdiratsuena. 70 lagunek praktikatzen dute kirol hau eta 450 kide edo sozio dira. Demaseko katramiletan dihardute sartzen baina gazte eta guapoak direnez aurrera aterako omen dira. Zer izango ote litzateke jokatzeko zelaia balute?

FIRIN FARAN

■ **BEKAK**

Gobernu Grekoarekin beka trukaketak udako ikastaroetara joateko, grekera ikasten duten Estatuko ikasleak eska dezakete. Hilabete bat iraungo du ikastaroak. Matrikula dohain izango da eta kultural ihauderak, alojamendu eta mantenua unibertsitate baten egoitzan, Kanpo Ministraritzaren aldetik bidai boltsak emango dira. Epea 1991eko Otsailaren 26an amaitzen da.

Gobernu grekoarekin beka trukaketak, 1991-92ko ikastarorako. Goimailako graduatuak grekera modernoa, frantsesa edo ingelesezko maila altu bateko pertsonak dira eska dezaketenak.

Inbestigaziorako eta espezializazio postgraduaturako. Iraupena 1991ko Irailak 1etik 1992ko Ekainak 30a arte da. 45.000 dacma hilero. Atenasen gelditzen direnetzat 10.000 dacma eta 20.000 probintzian gelditzen direnak. Matrikula dohain, mediku asistentzia eta bidai boltsa kanpo Ministraritzak emango ditu elarik. 1991ko Otsailak 26an amaitzen da epea.

Zientzi-sozialen ikasketa aurreratuen zentrurako bekak 1991-92rako. "Fundación Juan March"ek egiten du deia. Goi-mailako titulatuak eska dezakete beka hau, gaia zientzia sozialak izango direlarik. Iraupena hamabi hilabetekoa izango da. 110.000 pta emango dira hilero. Epea 1991ko Otsailaren 28.ean amaitzen da. Informazio gehiago, castello, 77, Madriden.



■ **LEHAIKETAK**

Bilbo aseguruak, pintura lehiaketa. Edozein autorek parte har lezake. Gaia librea da. Lehen saria 3.000.000 ptakoa izango da; bigarrena 2.000.000 ptakoa eta hirugarrena 1.000.000 ptakoa. Argibide gehiago nahi izan ezkero, deitu telefono honetara: 94 4605354.

Ikus-entzuteko errealizazioan VIII saria. Hezkuntza eta zientzia Ministaritza. Edonork parte-har lezake. Hezkuntza arloari buruzko gaiak izan behar dira.

U-Matik deitzen den formatoan eginiko bideo produkzioak 3.000.000 pta hartuko ditu. VHF formatoan aurkeztutako maketa eta gidoi onenari 500.000 pta emango zaio. Diaporama onenarentzat 500.000 pta eta traspanrentzien multzo onenarentzat kantitate bera. Epea 1991eko Otsailaren 29an amaitzen da. Korreoz bidali behar dira lanak, Torrelaguna, 5828070 Madridera.

Diseinu Eskulangintzan berrikuntzako V. lehiaketa. Eskulangintzara dedikatzen diren pertsonak parte har lezakete. Gaia eskulangintzako mobleria; eskulangintzako apaigarriak eta pertsonal erabilirako eskulangintza.

150.000 ptako 10 laguntza emango dira eskulangintzako produktoen modalitatean eta beste hamar 150.000 ptakoak denentzako eskulangintzan.

Modalitate bakoitzeko lehengo saria 1.000.000 ptakoa. 750.000 ptako bigarren saria modalitate bakoitzarentzat, eta hirugarren sari bat modalitate bakoitzarentzat 500.000 ptakoa.

Epea 1991ko Martxoaren 15.ean amaitzen da. Helbide honetara bidali behar dira lanak: Secretaria General de Promoción Industrial y tecnologia, programa de Artesania. Paseo de la Castellana, 160, 28071, Madrid.

Kili Kili
Gosariak
Platos konbinatuak
Goizeko isetatik zabalik
Ebahunduzu Tfnoa: 11 24 01

VICTOR ALTZARIAK
Zeure Txokoa Amueblatzeko
Uki Behua, 23 E.I.B.A.R Tfnoa. 11 09 39

Zagora Hizkuntzen liburudenda
C/ Arragüeta, 7 Tfnoa. 12 72 21
E i b a r

BOSSA
Garagardotegia
BURGUER
Gosareak
Goizeko 9etatik aurrera zabalik
EGO GAIN Kalea z/g (Arrate Hotelaren ondoan) EIBAR

umea
Umeen eta gazteen arropak
Errebal, 16 Tfnoa: 11 31 64 EIBAR

GAZTELU MODAK
Modan artesautza egitea
Arregloen denda
Legarre 19. EIBAR. Tfnoa: 11 81 59

MAHOIAK
Lanerako jantziak
Eneko Carral Goigana
Barakaldo, 13
Tfnoa. 12 03 75-Fax
Eibar
Lohikartzekoak
Petoak
Jakak
Kazadorak
Prakak
Alkondarak
Txabusinak
Lohihartzekoa
Anorakak
Xiezko eropak
Eskaularruak
Botak

Dioni Cortina: "Beharrezkoa da gogua eta sufritzen jakitea harrijasotzaile izateko"

Nahiz eta jaiotzez eibartarra izan eta orain "kalean" bizi, Dioni Cortina urte askotan, 19 urte inguru, bizi izan da Aginaga eibartar auzoan. Baserri girotik datorkio izan ere harriak jasotzeko eta bere indarra neurtzeko afiziño hau. 24 urtetako gazte honek 5 urte daramatza Eibarko Maternidadean lanean. Ondorengo lerroetan Dioni-rekin izandako elkarrizketa interesgarria eskeintzen dizuegu. Bertan gazte honek bere lana eta afiziñoari buruzko gauzak azaltzen dizkigu.

ETA KITTO.- Noiz hasi zinen Maternidadean lanean eta zer da zehazki zuk egiten duzuna?

CORTINA.- 86an hasi nintzen Maternidadean. Lehenengo Udaletxean egon nintzen eta han Maternidadera etortzea proposatu zidaten. Hasieran beldur piskatxo bat ematen zidan baina azkenenan hemengo esamina egin eta lanean hasi nintzen. gainera oso pozik aurkitzen naiz hemen.

ETA KITTO.- 5 urtetan Maternidadean egon ondoren seguraski edukiko duzu anekdota edo bitxikeriren bat kontatzeko.

CORTINA.- Estutasunak pasa ditut sarritan kalefaziñoarekin. Gertatu zait batzutan ikatz larregi bota ondoren hortik zehar joan naizela, kalefaziñoa ahaztuz. Eta bueltatzerakoan kalefazioa topera eta hemengoak piskatxo bat kezkatuta aurkitu izan ditut. Bestalde, hemen egoten diren "gaixoak" poz-pozik egoten dira operazioak ez direlako grabeak izaten, eta txisteak kontatzen eta guzti ibiltzen dira.

ETA KITTO.- Maternidadeko lanaz aparte, harrijasotzaile modura ibiltzen zara; noiztik praktikatzen duzu kirol hau?

CORTINA.- Orain dela 3 urte hasi nintzen. Hala ere ez dut inoiz profesio modura hartu niretzat afiziño bat da. Azkenengo kanpeonatoan, Leioakoan, 9 partehartzailetik 5. lekuan gelditu nintzen, eta hori oso ondo dago niretzat. Beste konpetiziñoetan ere parte hartu izan dut: Mutriku, Mendaro... eta baita Eibarko jaietan ere.

ETA KITTO.- Zer da Dioni kirol honetatik erakartzen zaituena, edo beste modu batera esanda, zergatik



zaude harrijasotzaile modura?

CORTINA.- Konpetiziño aurreko egunak oso urduri egoten zara eta horregatik plazara urtetzeko gogua ematen du. Gainera, plazan zaudenean zu baino hobeagoa izango zarela, nahiz eta gero azkenengo momenturarte ez entrenatu. Plazara zoazanean entrenamenduan egin duzuna demostratu behar duzu.

ETA KITTO.- Ordu asko sartzen dituzu entrenatzen?

CORTINA.- Astearte eta ostiraletan Mallabira joaten gara entrenatzera, zeren Eibarren ez daukagu lokalik. Eurek badakite lokalaren premian gaudela baina... Beste herrietan, Ermua, Mallabi, Mutriku, Elgoibarren... laguntza bat jasotzen dute Udaletxeetatik, eta hemen plazara ateratzeko ere burruketan ibili behar gara, beste herrietan baino askoz ere diru gutxiago ematen digutelako. Hala ere, guk nahiago dugu gure herriko plazara ateratzea, horregatik da gure herria eta. Momentu honetan Eibarren harrijasotzaile modura Poti eta neu gaude. Gero badaude orain hasi diren bi gaztetxo, Eñaut eta Asier, gurekin entrenatzen direnak. hemen, Eibarren lokalen bat ipiniko balitz agian jende gehiago apuntatu eta horrela kirol hau behintzat piskatxo bat altxatuko litzateke. Gainera, hemen inoiz ez da konpetiziorik antolatzen, nahiz eta jendeari asko gustatu holako gauzak. Beraz, Udaletxearen aldetik hutsune handi bat ikusten dut.

ETA KITTO.- Zer nolako kualidadeak edo ezaugarriak izan behar dira kirol hau praktikatzeko, Dioni?

CORTINA.- Gogua eta sufritzen jakin behar da, eta gustatu egin behar zaizu, noski, zeren ez bazaizu gustatzen ez dakizu sufritzen. Konpetiziñoan azkenengo minutuetan asko sufritzen da, baina gero bukatzen duzunean eta ondo ibili bazara sentitzen duzun satisfazioak aurretik sufritutakoa merezi du. Gainera azkenean bizio bat bihurtzen da, gero eta gehiago nahi duzu. Gure modalidadea harri txikixak bizkor altxatzea da, ahalik eta minutu gutxiagotan.

ETA KITTO.- Zihur nago Dioni afiziño hau baserri girotik datorkizula.

CORTINA.- Bai, baserrian txikitatik zaude holako kirolekin harremanetan, eta harrijasotzaile onak mirensten. Gauzak oso ezberdinak dira baserrian eta kalean: baserrian txikitatik lagunen artean zeure indarra neurtzen ibiltzen zara, norgahiagoka. Eta bizitza askoz gogorragoa da baserrian: beroa denean izerditan eta eurixa denean bustita; lan oso gogorra da, eta ezin da kaleko lanarekin konparatu.

... eta kitto! Gomendaturik



Denboran aurrera hasierararte

Azkenengo zenbakietan ohitura izan den bezala, oraingoan ere goi mailako diska batekin agertzen gatzaizkizue.

Aurreko gitarristen izenak eta lanak ez bazenituzten ezagutzen eta ezin izan badituzue eskuratu, aukera ezin hobea daukazute gomendatzen dizuegun hurrengo diskarekin. Arrakasta handia lortzen ari da gure artean eta azken hilabete hauetan taberna gehienetan sarritan jarri izan dute. Zihur entzun duzuela edo beratataz hitzegin dizuela lagunen batek.

Diskaren izenburua STILL GOT THE BLUES da eta dagoeneko badakizue norena den. Noski, bere izena Gary Moore da. Musikaren munduan bizi guztia eraman ondoren eta hainbat eta hainbat lan egin ondoren eta guztiak maila ezin hobekoak, orain, gizaki bezala heltzen doan heinean, bere musika argi dago berarekin batera heltzen doala. Eboluzio hau ez da ematen zerbait berri bat bezala baizik eta atzera bueltatzen da, berarentzat musikaren sustraia eta oinarria den Blues-a aurkitzen saiatzen delarik. Blues klasikoena.

Esan behar da, diska nahiko komertziala dela eta saltzeko aproposa, baina horregatik bere balioak ez du batere galtzen zeren gauza guztien gainetik klase handiko gitarrista eta gusto handiko abeslari batek lan egiten du bertan bere maila konfirmatzen duelarik edozeinek gustora entzun dezakeen diska bat argitaratuz.


Argi utzi du lan honekin, berarentzat maixu izan den Blues-a orain bere behatzen menpe dagoela eta ikasle izatetik maixu izatera pasatu dela. Eta hau ez da dena, Gary Moore-rekin "Oh pretty woman" "Oh neska polita" abestian jotzen duen Albert King beltz blusero klasiko horrek zioen bezala;

"Gary Moore-k ez du berak dakien guztia lan honetan plasmatzen. Diska hau ez da asko berak benetan egin dezakeen guztiarekin konparatuz."

Aitor Gorosabel

DENBORA PASA

GURUTZEGRAMA



EZKER ESKUIN: 1.- Adostasun bidean jarri. Objektu baten harrapaketa azkarra adierazten duen onomatopeia. 2.- Lasai. Zaietua. Sor eta ___ , zur eta lur. 3.-Moilea. Greba. Bokala. 4.- Kanpo. Infusioa. Eta. Zeukaten. 5.- Arrastelua. Behiaren arra. 6.- Izenorde pertsonala. Kontsonantea. Zikiraturiko zezen. Potasioa. Boroa. 7.- Bat. Zoritxarrekoa. 8.- Naizen honek. Bokala. Oka egin. Ardi, hitz elkarketan. 9.-Ipar., hots handia. Har ezak. Ez emea. 10.- Txori mota. Ikertu. Aluminioa.

GOITIK BEHERA: 1.- Nekagaitzak. 2.- Txukun, egoki. Ikara. 3.- Goialde. Arrenkurak. 4.- Beteko. Letra grekoa. 5.- Errepikatuz, txori mota. Bizkaiko herri famatu hori. Ipar., –rantz. 6.- Iodoa. Handi. Azken eta lehenengoa. 7.- Barazkia. Bokala. Joaki gara. 8.- Mastak. Kontsonantea. 9.- Oihu luzea. Toka, dute. 10.- Ukatzeko. Txorizo mota. 11.- Biltze. Listu. Kontsonantea. 12.- Roentgen. Eusko sabindarra. Urrea. 13.- _____ Deuna, Santa Ageda. Ekarri aditzaren erroa. 14.- Begirada. Aizkolariek ebakitzen dutena. 15.-Garraio mota. Zati.

ZER IKUSI HURA IKASI

FITXA TEKNIKO: **EGILEA:** Manu — **KAMARA:** Olimpus OM10 — **NEGATIBOA:** Valca F22 — **PAPERA:** Ilford Galeri. 2



Azkarateko igo eta Madariagatik Lasturrerantz joz oso paisai bukoliko eta zoragarriak aurkituko ditugu.

Kontua eten gabe begiratzea da hara eta hona. Behin gustoko txoko edo paisaia ikusteak argazkia izango denaren imaginа osatu beharko dugu makinan. Ondoren mekanika eta kimikak egingo dute falta dena.

Batzutan ez da hain erraza gertatzen baina lehengoan guk nahi dugun moduan ateratzen ez bada arretaz aztertu beharko ditugu motiboak hurrengoan hobeto egiteko. Horegatik komeni zaigu leku berberari argazki bat baino gehiago ateratzea, baitezpada ere, posizioak aldatuz.

"Goiz-argi" elkartia: Eibarren aspalditik herrixan ta bertako anbientian alde lanian

Eibarren emakume ezaunik badao horrek -errealistak- deittutakuak doguz. Oiñ urte asko dirala elkarte bat sortu zan Eibarren, emakumiendako bakarrik. Beste gauza askon artian ohittura bat sortu zan herrixan: emakume edadekuak eta ez aiñ edadekuak haratuzte agunian disfrazauta urtetzen debenekua. Eibartar guztixak egun horretan Estaziño kalera edota Dos de Mayo-n gure herriko -errealista- emakumiak mozorrotuta noiz urtengo begira egoten dira. Ale honetan elkartia zelan sortu zan eta bestelako eginkizunak (disfrazatzia) zelan eratzen dittuen ikusteko eta zuei irakorleoi eskaintzeko bideratua dago alkarizketia.



*Len kafeterixarik ez zeuan ta tabernetan andrakumia ez zan sartzen gizonakin ez bazan ta...eurixa eiñ, edo egualdi txarra zala ta...beti kalian geuazen andrakume guztia*k. Ta orduan ba...harexeaittik pentsau eban Merzedes Kareagak: zeozer eiñ bi*ou neskendako!!*

— Elkartia zelan sortu zen?

*"Hamen gaozenak ez gara izan hau sortu genduanak. Horretan gu baiño lenao ibili zian. Hau sortu zanian danok giñan "Acción católica"kuak. "Acción católica" elixako gauzia zan. Orduan denporan, neskak, nora juan ez jakiñian ta eziñian be bai agertzen zian. Len kafeterixarik ez zeuan ta tabernetan andrakumia ez zan sartzen gizonakin ez bazan ta...eurixa eiñ, edo egualdi txarra zala ta...beti kalian geuazen andrakume guztia*k. Ta orduan ba...harexeaittik pentsau eban Merzedes Kareagak: zeozer eiñ bi*ou neskendako!!*

Ondiokan bizi da Merzedes, laroge ta bi ute dakaz. Hamengo soziedadeko lehendakarixa bera izan da baiña oiñ itxi eiñ dau. Laurehun ta hirurogei kide edosozio daoz hamen soziedadian, 1951 izan zan hau funtzionamenduan hasi zaneko urtia. Merzedes Kareagak leziñuak emoten zittuan orduan: "formaziño leziñuak": erlijiño ta moralan gañian danetik apur bat, emoten zeban. Orduan berak zeozer eitteko premiñia euala ikusi zeban eta...hamen obrak hasitta euazen. Ta behiñ pasiora juan zan. Arrateko bidera ta...ikusi eban handik tokixa eta esan zeban: horixe da tokixa neskendako modukua!! Ta...holantxeik!! Kontratistiakin berba egin zeban ze...hau eitteko dezididu eiñ bihar zan ze, honek eztaka posterik ez ezer ta etxe guztixa goratzeko hauxe izan bihar zan lelengua. Orduan akziño batzuk etara zittuan. Halaxe sortu zan."

— Zelan funtzionatzen dau elkartiak?

"Hamen gauza asko eiñ dira, gauza asko eiñ dira hamen: sunormalendako lanak, tonbolak be eitten ziran ta ataratzen zan dirua, batzutan, klub ziklistiandako zan, bestetan soziedade deportibuandako be bai. Postulaziñuak kantzerra ta holakuentzako, sukaldeko leziñuak, teatruak, matrimonixo aurreko konferentzixak eta gaztiendakuak be bai; ta...gauza asko!! Gero orfeoiak eta ensaiuak eitteko ta halakuetarako be prestatzen zan lokala."

"Sortu zanian kondiziñua andrazkuentzakua bakarrik izatekua zan, ta urtian behiñ eitten zan parejiakin. Gizonezkuek heuren soziedadia zeken, ta han ez zan sartzen andrazkorik ta...klaro!! Orduantxe guk esan genduan. Orduan ez zeuan emakumiendako soziedaderik Españia guztixan, oiñ Euskadin bertan be hiru daoz.

Eibartarrek lelengotan hau soziedadiau galdu eiñgo zala pentsau zeben, ezin leikiala gizonezko barik funtzionau ta...ondiokan zutunik dao hau!!"

- **Eibartarrek lelengotan hau soziedadiau galdu eiñgo zala pentsau zeben, ezin leikiala gizonezko barik funtzionau**
- **Kuotekin funtzionatzen dou, baiña beste soziedadietan baiño txikixauakin ze: andrazkuen artian eztao kuota handirik ipintzerik.**
- **motibua topatzia anbiente modura juateko ezta erreza, eh? Eta jentiak beti esaten dosku: -urten,eh? Ez laga gero, eh?**
- **Aurtenguan segurutik pelikula moduan87 disfrazauko gara: umienak eta ronbodunak be bai.**

— Elkartian izena nundik atara zenduen?

"Ba lelengotik, hau Franco-n denporan sortu zan ta, gekaun euskerazko izena: "Goi-argi" baiña...ezin zabaldu ta: "Sociedad Femenina Eibarresa" ipini zan. Gero, Franco hil zanian, "Goi-argi" ipini zan barriro.

Kuotekin funtzionatzen dou, baiña beste soziedadietan baiño txikixauakin ze: andrazkuen artian eztao kuota handirik ipintzerik.

Hamen danetik dao ta...kolore guztietakuak!! Ta hau ezta politikua, hamen ezta eitten politikarik!! Hona etortzen dia elixatarrak ta elixatikuak eztianak, danok!! Bardiñ, bardiñ!! Hau da demokrazixa hutsa!! Herriherrikua!!"

— Disfrazatzeko ideia zelan sortu zan?

"Pentsaizu zelan sortu zan. Lelengotik hasi giñan batzuk: bata kirofanoz, bestia ikaragarrizko txintxoiakin, ni neu eskopetero, beste bat txulo disfrazauta ta bestia korrikalari lelengotan urten genduan bostok herrixan zihar jantzitta...ta jente guztia hasi zan: -Ene!! Beittu horrek!! Ez zan jazten hainbeste jente, eh? Gaba guztian geure atzetikan euki genduazen, ta mundu guztixak: neu be bai datorren urtian!! Neu be bai!!

Hurrengo urtian pentsau genduan: zeaittik eztou Real Soziedade modura eiñgo jantzixa aurtenguan? Orduan Reala kanpeoi zebillen, ta bueno!! Trajiak eskatu errealekueri ta traje ofizialekin juan giñan, barri-barrixekin; pentsaizu zelakuak ze hurrengo egunian bueltau eiñ bihar izan genduazen jolkatu eiñ bihar zebela ta.

— Maitanek diño: "ziklista juan giñanian, nik hartu neban txiki bat, umiena, sekula ez neban hartu bizikletarik ta...hartu neban hor eh... belozidade bat ta...Txaltxaneraiño!! Agiñaspiraiño gelditxu barik!! Parian harrapau baneban, batenbat harrapauko neban!! Danak harrapauko nittuan!!""

— Haratuztia zer da zuentzako?

"Jai ederra!! Jai ederra!! Oso jai ederra!! Oso anbiente ona egoten da!! Gaiñera danok alkartuta egoten gara haratuztietan. Andra guztiak, urtian zihar urtetzen eztabenak be, urtetzen dabe. Estaziño kalera juaten da jentia geu ikustera -salen las viejas- esanda."

Beti esaten dou laga eiñ bihar dogula ze...ze jantzi be hainbesteren artian, ezta erreza, motibua topatzia anbiente modura juateko ezta erreza, eh? Eta jentiak beti esaten dosku: -urten,eh? Ez laga gero, eh?-."

— 10 urtetan zelan disfrazau zarie? Aurtengorako zelan?

"Lelengo Real Soziedade, bigarrenian bandia, gero karrera ziklistia, gero zezen korridia, gero zirkua (politxenetarikua), Euskadiko kirolak beste batian, telebista, San Blas eta azkenengua ur faltaz.

Aurtenguan segurutik pelikula moduan87 disfrazauko gara: umienak eta ronbodunak be bai."

LA KUESTA
OPTIKO-OPTOMETRISTA
OPTIKA DIPLOMATUA
Calbeton 23
Tfnoa. 11 10 61 EIBAR

Iraolagoitia liburudenda
• Jaunartzerako opari
• Haratuzteetarako apaingarriak
• Ingeles eta euskal liburuak
• Papertegia
Bidebarrieta, 22 Tel: 11 16 17

Larramendi
Etxerako elektratresnak
Estaziño, 6 Tfnoa. 11 30 11

MUÑOA
ZURE AUTOARENDAKO ORDEZKO PIEZAK
BIDEBARRIETA 14, 16.
TFNOA. 11 13 17
11 62 28

Hornikuntza industriala - Ferreteria
GABAIONDO BASTIDA
Brikolagea, Babesketza, Tornileria eta Akabaua edo Pulimentua
Barakaldo,9 Tfnoa: 120208 - 120212

Fitxa teknikoa

Izena: Udalbus
Hasiera: Urtarrilaren 7an.
Kopurua: oraingoz bi, ibilbide berdina egiten dutelarik.
Espazioa: hamaika pertsona jarrita eta hamalau zutik.
Prezioa: hamar milioi inguru bakoitzak.
Helburua: Eibarko auzo gehienetara jendea garraiatu.
Bidaiaren prezioa: 35 pta. (300 pta. hamar bidaiagatik).
Frekuentzia edo maiztasuna: geltoki guztietan hogei minutuero.



Udalbusa: zelako zerbitzua da jendearentzat

Gai honi buruz gehiago jakiteko **Jose Migel Calle** (Udaltzain burua), **Silberio Laskurain** (Udalbuseko txoferra), taxista batzu eta egunero ibiltzen den **Asier** deituriko ikaslea izan dira gure artean.

■ **Trafikoa azkartzearen helburua**

Jose Migel Calleren ustez "lehengo PESA autobusen ordutegia errespetatu da baina ibilbidea auzo berri batzuetara zabaldu dugu. Bi Udalbus martxan dauden arren beste hirugarren bat erostea pentsatua dago beste bien errelebo edo aldakin gisa. Badakit auzo batzuetara ez dela heltzen, baina kasu batzutan ezinezkoa da oso urrun daudelako edo itinerarioarekin bat ez dagoelako edo sarbidea zaila egiten delako. Guk jendearen nahiak eta kexak ezagutu nahi ditugu gehienbat; demanda asko dagoela eta Udalbus gehiago behar direla? ba...guretako fenomeno! horrek Udalbusean jende gehiago mugitzen dela eta ondorioz kotxe gutxiago erabiltzen direla esan nahi duelako. Azken finean lortu nahi dugun helburua trafikoa azkartzea eta kotxearen erabilera murriztea litzateke."

■ **Taxisten ustez oraingoz konpetentziarik ez**

Taxistek beste ikuspegi bat erakutsi digute: "Presazko momentuetan edo komodidade bila dabilen pertsonarentzat taia egokiagoa da, nahiz eta zertxobait garestiagoa izan. Batzutan taxian aurreratutako denbora askoz baliogarriagoa da mikrobusean aurreratutako dirua baino". Oraingoz ez dute konpetentziarik igarri: "gehienbat jende nagusia etortzen da guregana, eta ez dugu uste pertsona hauek mikrobusean zutik joateko edo bertara igotzeko gai izan daitezkeenik. Honetaz gain mikrobusari akats batzuk ere topatzen dizkiogu, adibidez, jarraitzen duen ibilbidea. Leku guztietara heldu nahi duenez auzo konkretu batera joateko kriston buelta eman behar du, denbora mordua galduz. Gainera hain bide aldapatsu eta hestua erabili behar duenez karabanak ere sortarazten ditu. Azken finean lau pertsonari laguntza eskeintzeko beste berrogeitamarrek jasan behar dute atzerapena."



■ **Jende gutxi bidaiatzeko ahalmena**

Asierrek (ikaslea bera), aldiz, egunero Amañatik San Andresera egiten du ibilbide berdina eta oso gustora dago sortutako ideia berri honekin. "Oso erosoa da nire ustez eskola parean Udalbusa hartzea eta etxeko atean jeistea. Egia da batzutan ordutegia ez dela zehatz mehatz betetzen, edo toki gutxi dagoela jendea jarrita joateko, baina hala ere asko gustazen zait."
Hurbiletik ikusten duen pertsona batekin ere izan dugu elkarrizketa, hain zuzen **Silberio Laskurainekin**, Udalbusean txofer bezala ari denarekin. "37 urte daroiat bolante aurrian eta uste dot Eibar ondo ezautzen dotela eritzi bat emoteko. Behetik gora nahiz goitxik behera joateko ordu erdi bihar da, baina guk hogei miñututan eiñ bihar dogu, beraz, askotan bizkorregi ibiltzen gara herrixan, behar baiño bizkorrago. Beste Udalbus bat jarri ezkero hobeto ibiliko giñake, lasaiago behintzat. Batzutan jentia lanera edo estudixatzera badoia puntualidadea exigitzen dau. Bestaldetik Udalbusa txikixegia dela ikusten dot. Zabaleria oso ondo dao, baiña luziagoa izan biharko litzake."



Angel Martinez. 55 urte.
Kalegarbitzailea.

"Primeran dago Udalbus delako hori! Oraindik ez dut erabili baina ideia ona iruditzen zait."



Beatriz. 12 urte. Ikaslea.

"Udalbusa ideia ona iruditzen zait, hala ere ez naiz oraindik ibili ordutegia gaizki etortzen zaidalako".



Glasinda Paz. 55 urte. Etxekoandrea.

"Haserre nago auzo guztietara ez doalako, adibidez Paziano Arosara (lehengo San Kristobal). Gainera ni giltzurrunetatik gaizki nabil eta plazara oinez joateko kristonak pasatzen ditut."



Nerea Arregi. 32 urte.
Dendalaguna.

"Oso ondo dago baina Jardiñetatik ere pasa beharko litzateke ume asko bait daude La Merced eta Aldatzera joateko. Gainera bi Udalbus ez dira nahiko Eibar moduko herri batentzat."



Maite Murga. 30 urte.
Etxekoandrea.

"Ezin dut ezer esan ez bait naiz sekula ibili. Badakit etxe parean daukadala geltokia baina ez dut oraindik probatu."



Gabriel Martinez. 68 urte.
Jubilatua.

"Ah! Orduan egia zen! Dizienbre bukaeran irakurri nuen notizia egunkarian baina uste nuen iñuxentada bat zela."

AGENDA: 1991 eko OTSAILARAKO

■ **KIROLA**

K. Deportiboko Mendizale Taldeak antolaturik.
Mendi irteera
-02-16an: Durango-Eibar
SKI: Asteburuetan FORMIGALera Irteerak. Argibide gehiago K. Deportiboko Ski Taldean. Arratsaldeko 7retatik aurrera.

HAURRENTZAKO MENDI-IRTEERAK: Herriko haur guztientzat.
Izen-ematea: Ikastetxeetan.

■ **POLIKIROLDEGIAN**

IGERI-IKASTAROAK:Otsailaren 4tik-Martxoaren 1era
Lan-eguneta
10'00-11'00: Helduak Hasiera
17'30-18'30: 4-6 Urte/ Hasiera
17'30-18'30" 6-9 Urte/ Hasiera
20'30-21'30: Helduak/ Hobekuntza
MANTENIMENDU GIMNASIA: Egunero/ Ordu desberdinetan
AEROBIC: Astearte-Ostegun/19'30-20-20/20'30-21'20
GIM-JAZZ: Astelehen/Asteazken/ 20'10-21'00
Oharra: Goian aipaturiko ekintzetan parte hartu ahal izateko hileroko-kuota: Abonatuak: 1.825.- Pzta/ Besteak: 2.100.- Pzta.
KARATE - TXIKIAK: Astelehen-Asteazken-Ostiral: 18'30-19'20
Astearte-Ostegun: 18'00-19'00
KARATE-NAGUSIAK: Astelehen-Asteazken-Ostiral: 19'20-20'10
JUDO-TXIKIAK: Astelehen-Ostiral: 17'30-18'30
JUDO-NAGUSIAK: Astelehen-Ostiral: 16'30-17'30
Oharra: Azken ikastaro hauetako hileroko-kuota: 2.300 Pzta txikiak eta 3.275.- Pzta nagusiak. 01-17an: Udaletxeko Kultura Aretoan. Sari-Banaketa.

■ **ZINEA:** Unibertsitate Laboraleko EGO-IBAR Taldeak antolaturik Zine Emanaldiak, astearteetan. Saio bi: 5'30etan eta 21'00etan.
02.5an: "Un pez llamado Wanda".
02.9an: "Grita Libertad"
02.27an: "El tunel"

■ **ARGAZKI ERAKUSKETA:**

K. Deportiboko Argazkilaritza taldeak antolatuta, Lan Kide Aurrezkiaren Erakusketa-Gelan (J. Etxeberria kalean).
02-16tik-02-25era: J.L. IRIGOIEN - GAIA: BILUZIAK

NORK - ZER

Koordinatzailea:
Fernando Muniozguren.

Erredakzio taldea:
Ana Aizpuru
Idoia Irazola.
Fernando Muniozguren.
Amaia Muruamendiaraz.
Oskar Rekalde.
Arrate Zuloaga.
Aitor Gorosabel.
Jose Luis Gorostegi.
Letizia Gomez
Mireia Ugarteburu

Argazkilaria:
Jose Valderrey.
Mireia Ugarteburu

Literatura:
Ane Sarasketa

Maketazioa:
Jose Valderrey.

Komikia / Marrazkia:
Ander Gisasola.

Inprimaketa:
Gertu

calcul mecano
Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara
EIBAR (Gipuzkoa)
Toribio Etxeberria
Telf: 70-07-50 / 70-11-95

beistegui sukalde estudioak
sukaldeak diseinatu eta zeure gustora jartzen ditugu
Juan Olsasola, 6
Tfnoa. 70 12 96
20600 EIBAR